

AURKEZPENA

Lan Harremanak aldizkariaren ale honetako gai monografikoa, hain zuzen, «Emakume langileen Laneko Segurtasun eta Osasuna» da. Olga Fotinopoulou irakasleak argitalpenaren edukiaren eta helburuaren berri eman digu. *Lan Harremanak* aldizkariaren Erredakzio Kontseiluaren izenean, eskerrik beroenak eman nahi dizkiet Fotinopoulou irakasleari eta monografikoa idatzi duten gainerako pertsoneri, gurean hain artikulua interesgarriak argitaratzeko proposamena egiteagatik.

Monografikoko bederatzi artikuluez gainera, beste bi artikulua ere gehitu ditugu. Angel Olazen artikulua, batetik, dimentsio anitzeko ikuspegitik langiroaren esanahia aztertzea du helburu. Erakundeko giroaren analisi eta diagnostikorako ekarpen metodologikoa da, eta egindako analisiaren arabera hobekuntza-neurri jakin batzuk proposatzen ditu. «Jardunbide egokien» neurri horien xedea, beraz, erakundeetako giroa mikazten duten alderdiei aurre egitea da; eta aldi berean, dagoeneko erakundean ezarritako eta bizikidetzaz-ereduari, eta ondorioz, baita ekoizpenean, eraginkortasunean eta esperotako emaitzetan oinarritutako beste aldagai batzuei ere, kalteak eragin diezazkieketen alderdiak zuzentzen laguntzea.

Eguzki Urteagak, bestetik, europar eraikuntzaren gizarte-dimentsioa aztertu du, bertako lege-arauei, kontratuzko arauari eta mekanismorik malguenei erreparatuta (horien artean, gizarte-elkarrizketatik datozenak). Europar Batasunaren zailtasun ekonomiko eta politikoetatik eratorritako gizarte-dimentsio horren erronkak azaltzen ditu, eta ikuspegi sozio-ekonomikotik oso desberdinak diren 27 herrialdetara zabaltzeak dakarren desberdintasuna ere azaltzen du; izan ere, erronka horiek arazo berriak sortzen dituzte eta erkidegoan gizartea arautzeko abian jarritako bideak zalantzan jartzen dituzte.

MIKEL DE LA FUENTE LAVÍN

Lan Harremanak aldizkariaren zuzendaria

EMAKUME LANGILEEN LANEKO SEGURTASUNA ETA OSASUNA

«Emakume langileen Laneko Segurtasun eta Osasuna» monografiko honen helburua, hain zuzen, genero-ikuspegitik laneko arriskuen prebentzioa lantzea da. Izan ere, ezin dugu ahaztu azkenaldian ikuspegi berri baten alde egiten ari garela oro har langileen segurtasun- eta osasun-gaiak lantzean (LAPLko 5.4 art.). Helburu den lan-merkatuak, beraz, bertako kideen osasunari begira beste modu batean jardungo du. Horixe izango da abiaburua. Izan ere, lanbide-arriskuak egotea eta horiek behin-behinean lanetik eratorritako kalte bilakatzea dakarten aldagaiek (besteak beste, emakumeen enplegu-ezaugarriak lan-merkatu segmen-tatu batean, iragankortasuna, lanaldi partzialeko lana, prekarietatea, zenbait ze-regin emakumeenak direla pentsatzea, lanaren antolakuntza edo lanaldi bikoi-tza egitea) baldintzatu egiten dute emakumeek lan ordainduan parte hartzea; eta hori ez ezik, ondorio nabarmenak ere badakartzate —arestian esan dugun mo-duan— emakume langilearen osasunari begira.

Beraz, «*Lan Harremanak*» aldizkariko monografiko hau osatzen duten lane-kin emakumearen babeserako neurri guztietan bilakaera gertatzea lortu nahi da; betiere, laneko arriskuen prebentzioaren ikuspegitik. Egia esan, duela ez hain-beste, legedian bildutako prebentzio-mekanismo edo -neurri gehientsuenek babes izaera hutsa zuten. Denborarekin, ordea, begirada hori aldatuz eta aldatuz joan da, eta azkenerako, langile guztientzat berdintasunean oinarritutako neurriak dira, bakoitzaren sexua zeinahi delarik ere. Horrenbestez, ikuspegi horren ara-bera, laneko arriskuek modu berean eragiten diete gizona eta emakumeei. Izan ere, azkenaldian lau haizeetara zabaldu den moduan, zenbait eragilek eraginda-ko kalteek ez dituzte sexuak bereizten. Dena den, azken begirada honek ez du alde batera utzi nahi izan —denok dakigun moduan— emakumeak, emakume izateari lotutako funtzio biologikoak direla tarteko, bestelako ondorioak edu-ki ditzakeela zenbat jarduera gauzatzean. Beraz, xedapen espezifiko bat dauka-gu (LAPLko 26. art.), ugalketa-prozesua babesteari begirakoa; alegia, emakume langileak hainbat arrisku-egoeratan babesteari begirakoa: amatasun-arriskueta, haurdunaldiko arriskueta edo edoskitzaroko arriskueta. Aurrekoari inolako kalterik eragin gabe (monografiko hau osatzen duten ikerlanetan ezin saihestuz-

ko gaia baita, zalantzarik gabe), beste pauso bat ematen ahalegindu gara. Horretarako, aintzat hartu dugu zenbait osasun-arazok modu desberdinean eragiten dietela emakumeei eta gizonei; izan ere, jakin badakigu, hainbat aldagairen arabera, emakumeek gizonezkoek baino osasun-arazo handiagoak izaten dituztela zeregin berbera gauzatzean.

Agerikoa da, alabaina, errealitate horretaz ohartzea, eta beraz, gure legedia aldatu, eta genero-ikuspegitik laneko arriskuen prebentzioa oso-osorik ulertzen ahalegintzea ez dela lan erraza; zailtasun gehigarriak ditu, gainera. Inortxok ere ez du ahazten legegileak arau-neurriak hartzeak eta horiek gerora enpresan txertatzeak berdintasunean oinarritutako baldintzetan enplegurako sarbidea oztopa dezaketen trabak sor ditzaketela, eta azkenerako, bilatzen ez den ondorioa lortu daitekeela: emakumeari kaltea eragitea eta berau baztertzea, alegia. Ondorioz, ezinbestekoa da gai hau tentu handiz eta zuhur aztertzea.

Gogoeta orokor horiek abiapuntu hartuta, Edurne López Rubia irakasleak eta nik neuk, aurkezpen hau sinatzen duenak, bere garaian erabaki genuen Euskal Herriko Unibertsitateko *Berdintasunerako Zuzendaritzari* laguntza eskatzea, arestian aipatu ditugun eta hainbeste kezkatzen gaituzten alderdi horiei guztiei buruzko jardunaldia antolatzeko. «*Laneko Arriskuen Prebentzioa, genero-ikuspegitik*» jardunaldia, beraz, Leioako Lan Harremanetako Unibertsitate Eskolan egin genuen, 2010eko apirilaren 23an. Eta jardunaldi hori dugu, hain justu, gai horrekin lotuta gaur aurkeztera gatozen azterlan multzoaren iturria. Izan ere, hitzaldi multzo hartan, oraintxe zuen eskuen artean duzuen lanean bildutako hainbat kontu aztertu ziren. Era horretan, «*Emakumeen eta gizonen berdintasun eraginkorra, laneko segurtasun- eta osasun-baldintzei begira: sexuari ezinbestean erreparatu beharra, emakume langileen babes eraginkorra bermatzeko*» atariko azterlana egin zuen Martín Hernández doktore andreak (Salamanca Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko irakasle-doktore kontratatua). Harekin batera, Valentziako Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko Unibertsitate Irakasle Titularrak, Fabregat Monfort doktore andreak, «*Laneko jazarpena, laneko arriskuen prebentzioaren ikuspegitik. Ohar batzuk*» arazoa aztertu zuen. Eta, azkenik, Cairós Barreto doktore andreak (La Lagunako (Tenerife) Unibertsitateko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko Unibertsitate Irakasle Titularra) hitzaldia eman zuen: «*Haurdun dagoen, berriki ama izan den edo edoskitzaroan dagoen emakume langilearen segurtasuna eta osasuna*».

Hitzaldietan parte hartu zutenen lanekin batera azterlan honetan biltzen diren gainerako lanak gai horietan adituak diren egileek gauzatu dituzte, bakoitzak modu berezian aztertuta. Esate baterako, UPV/EHUko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko Unibertsitate Eskolako Irakasle Titularraren (Urrutikotxea doktore jauna) parte-hartzea azpimarratu behar dugu. Hain zuzen, «*Lanean genero-indarkeriari aurrea hartzea: Euskal Herriko negoziazio kolektiboaren azterketa*» lanari buruz jardun zuen. Bestalde, Coruña Unibertsitateko Lanaren eta

Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko Unibertsitate Irakasle Titularrak, Carril Vázquez doktore jaunak, laneo arriskuen prebentzioarekin lotutako gaiak ez bete-
tzeagatiko enpresa-erantzukizunak aztertu ditu *«Emakumeen laneo segurtasun- eta osasun-betebeharrak ez betetzegatik enpresaburuari eska dakizkiokeen erantzukizun juridikoak»* lanean. Horiekin batera, negozioazio kolektiboan aditua den Martínez Gayoso doktore andreak (UPV/EHUko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko Unibertsitate Irakasle Titularra) Euskadiko negozioazio kolektiboak lane-
ko segurtasun eta osasunari begira duen rola aztertu du, genero ikuspegitik, *«Lane-ko arriskuen prebentzioa, gizonen eta emakumeen berdintasuna eta EAEko negozioazio kolektiboak»* lanean. Jardunaldia antolatu zuten irakasle andreak izan ziren, azkenik, gainerako parte-hartzaileak. Nork bere gaiak landu zituen. Esate baterako, López Rubia irakasle andreak (UPV/EHUko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko Unibertsitate Eskolako Irakasle Titularra) Espainian emakumeen segurtasun-
eta osasun-araudiaren bilakaera aztertu du, *«Babes-legeditik legedi neutro baterako jauzia»* lanean. Fotinopoulou Basurko doktore andreak, bestalde (UPV/EHUko Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko Unibertsitate Irakasle Titularra), emakume langile autonomoen eta menpeko langile autonomoen laneo segurta-
sun eta osasunarekin eta gizarte-babesarekin lotutako zenbait alderdi aztertu ditu, eta bularra emateko baimenari buruzko aipamen txiki bat ere egin du. Bere lane-
k, hurrenez hurren, izenburu hauek dituzte: *«Emakume langile autonomoen eta menpeko langile autonomoen amatasuna eta edoskitzaroa babesteko eta horri aurre egiteko hainbat alderdi»* eta *«Ama langile autonomoa denean, aitzak bularra emateko baimen-
naz gozatzeko duen eskubidea (Justizia Auzitegiaren 2010eko irailaren 30eko Epaia-
ren C-104/09 gaia aintzat hartuta; Roca Álvarez)»*.

Nolanahi ere, ez nuke monografiko honen aurkezpena amaitu nahi pertsona eta erakunde batzuei eskerrak eman gabe, labur-labur bada ere. Lehenik eta behin, eskerrak eman nahi nizkieke UPV/EHUko Berdintasunerako Zuzendaritzari eta Unibertsitate bereko Lan Harremanen Unibertsitate Eskolari; izan ere, horien la-
guntza ekonomiko eta logistikorik gabe, ezinezkoa zatekeen arestian aipatutako jardunaldia antolatzea. Bigarrenik, eskerrak eman nahi dizkiet *Lan Harremanak* al-
dizkariko Zuzendaritzari eta Erredakzio Kontseiluari, euren konfiantza jardunaldi-
ko zuzendariongan jarri dutelako, honako monografiko hau atontzeko. Eta, azke-
nik (ezin zitekeen bestela izan), eskerrik beroenak eta berezienak, bere garaian lan
hau egiteko proposamena onartu zuten egile guztiei, eta baita aipatutako jardu-
naldiko parte-hartzaile denei ere. Izan ere, euren ekarpenei esker, izugarri aberastu
ahal izan dugu azken proiektua. Eta amaitzeko, azpimarratu nahi nuke lan eskerga
honen emaitza irakurleen interesekoa izatea espero dudala.

OLGA FOTINOPOULOU BASURKO

Lanaren eta Gizarte Segurantzaren Zuzenbideko Unibertsitate Irakasle Titularra
Gasteizko Enpresa Ikasketen UE
Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea